# NEGUKO EKIMEN FEMINISTAK

## URTARRILA - OTSAILA - MARTXOA




688 63 84 49
berdintasuna@bermeo.eus

BERMEOKO UDALA

- OINARRIZKO MEKANIKA
- BIZIRAUPENERAKO SUKALDARITZA (OLHUI)
- EMAKUMEEN FAMILIA ALBUMAK
- ZAINTZARAKO SUKALDARITZA
- DE LA HUMILLACIÓN A LA LIBERACIÓN DE LAS MUJERES (LIBURUTEGIA)
- SORGINAK, PUTAK, TERRORISTAK
- IRAKURLE TXOKO FEMINISTA (EUSKERA SAILA)

# BERDINTASUN SAILEKO IKASTAROAK

Plazak mugatuak dira. Partaideen zerrenda izen- emate dataren arabera egingo da. Bermeon erroldatutakoek lehentasuna izango dute.

Astebete arinago ez bada taldea osatu, bertan behera geratuko da.

Irisgarritasun beharrizanak badituzu, mesedez, jakinarazi izena ematean

berdintasuna@bermeo.eus
688.63.84.49

**IZEN-EMATEA**

**EPEA**

**ABENDUAREN 22AN HASITA, PLAZAK BETE ARTE.**

## MARTXOAK 8



## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**ADI DEIALDIETARA**

## URTARRILA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

- **Oinarrizko Mekanika:** Urtarrilak 15,22,29
- **Irakurle txoko feminista:** Urtarrilak 21
- **De la humillación a la liberación de las mujeres:** Urtarrilak 29

## OTSAILA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 01 |
| 2 | 03 | 04 | 05 | 06 | 07 | 08 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | |

- **Emakumeen familia albumak:** Otsailak 5
- **Emakume zientzialarien nazioarteko eguna:** Otsailak 11
- **Sorginak, putak, terroristak:** Otsailak 19
- **Irakurle txoko feminista:** Otsailak 25
- **Zaintzarako sukaldaritza:** Otsailak 26

## MARTXOA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23/30 | 24/31 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |

- **Zaintzarako sukaldaritza:** Martxoak 5
- **Emakumeen nazioarteko eguna:** Martxoak 8
- **Biziraupenerako sukaldaritza:** Martxoak 11
- **Irakurle txoko feminista:** Martxoak 25

15 EGUENAK
TAILERRA

| ORDUA | TOKIA | 18 + EMAKUMEAK | GAZTELAINAZ |
|---|---|---|---|
| 17:00 - 20:00 | KULTUR ETXEA | | |

# OINARRIZKO MEKANIKA TAILERRA

## Autoaren piezak, funtzioak eta mantentze-lanak

## TREBATZAILEA

**Paz Carbajosa Dalmau**



IZENA EMATEA
URTARRILAREN 15EAN
HASITA, 3 SAIO

Jasotako genero heziketaren ondorioz, emakumeak ez gara oso iaioak sentitzen hainbat eremutan, esate bateroko, kotxe mekanika esparruan.

Zenbat aldiz joan gara tailer batera eta deseroso sentitu gara egindako lana eta ematen diguten aurrekontua baloratzen ez dakigulako, edo, are gehiago, ezin izan dugu ulertu gure ibilgailuak behar duen konponketa?

Tailer honen asmoa da ikuspegi berri bat ematea. Gure buruarengan konfiantza, jakin-mina, esperientzia eta autoezagutza sustatzea.

Auto mekanikaren oinarrizko ezagutza ikasiko dugu: osagai nagusiak, dauden sistema eta funtzio ezberdinak, behar diren zaintzak autoa prest izateko eta bertan mantentze lanak egin ahal izateko.

¿Cuántas veces hemos ido a un taller y nos hemos sentido incómodas porque no sabemos valorar el trabajo realizado y el presupuesto que nos dan o, incluso, no hemos podido entender la reparación que necesita nuestro vehículo?

La intención de este taller es aportar una nueva perspectiva. Fomentar la confianza, la curiosidad, la experiencia y el autoconocimiento en nosotras mismas.

Aprenderemos el conocimiento básico de la mecánica del coche: los componentes principales, los diferentes sistemas y funciones, los cuidados necesarios para tener el coche preparado y realizar el mantenimiento.

| URTARRILLA | OTSAILA | MARTXOA |
|---|---|---|
| 21 ASTEAZKENA | 25 ASTEAZKENA | 25 ASTEAZKENA |

# IRAKURLE TXOKO FEMINISTA

## TREBATZAILEA

Nagore Fernandez Zabala




IZEN-EMATEA ZABALTZEN DENEAN JAKITERA EMANGO DA INFORMAZIO GUZTIA

Irakurleen txoko feministan liburuek genero-ikuspegiaz berba egiteko ematen dituzten aukeretan zentratuko dira batez ere, alderdi literario eta fikzionalari horrenbeste begiratu barik. Hala, irakurketetatik eta fikziotik, obretan eraikitzen den errealitatean generoak zer leku duen eta zelan eraikitzen den genero-diskurtso hori hausnartuko dute parte-hartzaileek. Amatasuna, genero-indarkeria, maskulinitate- eta feminitate-ereduak, eredu ez-binarioak, espazio publiko vs. pribatuak, gorputzak, agency edo egiletasuna, prostituzioa eta bestelako kontzeptuak egongo dira parte-hartzaileen solasaldien erdigunean.

**29** EGUENA
LIBURU AURKEZPENA

| ORDUA | TOKIA | PUBLIKO GUZTIAK | GAZTELAINAZ |
|---|---|---|---|
| 18:30 | LIBURUTEGIA | | |

# DE LA HUMILLACIÓN A LA LIBERACIÓN DE LAS MUJERES

Emakumea izatea delitu zen garaia

## IDAZLEA

**Mª Anjeles Gonzalez Delgado**

SARRERA LIBREA
PUBLIKO GUZTIAK




Garai batean emakume izatea ia delitua zen. Eta, hala ere, badaude isildu ez ziren emakumeak.

Liburu honek frankismo garaian emakumeek jasandako kontrola eta isilpena aztertzen du, eta nola Sección Femenina-k eta Emakumea Babesteko Patronatuak emakumeen identitatea otzan eta mendeko bihurtu zuten. Trantsizio garaiko mugimendu feministaren lana jasotzen du, bereziki Burgosko Emakumeen Asanbladaren ekintza, borrokak eta erronkak kontatuz.

Aktibismotik idatzita, liburuak demokrazia bazterretatik eraiki zuten emakumeen memoria berreskuratzen du.

Hubo un tiempo en el que ser mujer era casi un delito. Y, aun así, hubo mujeres que no se callaron.

Este libro analiza cómo, durante el franquismo, las mujeres fueron controladas y silenciadas, mostrando cómo la Sección Femenina y el Patronato de Protección a la Mujer moldearon una identidad femenina sumisa y dependiente.

La segunda parte recoge el trabajo del movimiento feminista durante la Transición, centrándose en la Asamblea de Mujeres de Burgos, sus acciones, retos y luchas.

Escrito desde el activismo, el libro recupera la memoria de las mujeres que construyeron la democracia desde los márgenes.

**5** EGUENA TAILERRA

| ORDUA | TOKIA | EUSKERAZ ETA GAZTELANIAZ |
| --- | --- | --- |
| 18:00 | KULTUR ETXEAN | |

# MEMORIA BIZIA, MEMORIA KOLEKTIBOA

## Memoria bizia argazki pertsonalen bidez

### TREBATZAILEA

**Ainhoa Resano Melado**



IZENA EMATEA
65+ EMAKUMEAK

Emakumeen familia-albumetan gordetako memorian, haien argazkietan eta kontakizunetan oinarritutako bilaketa bat da. Album familiarren zaindari diren azken belaunaldiko emakumeekin egindako topaketa bat, idatzi gabeko memoriaren zaindariak diren emakumeekin.

Familia-argazkietatik abiatuta oroitzapenak, bizipenak eta esperientziak partekatuko ditugu. Bakoitzak ekarriko dituen argazkiekin lan egingo dugu, oroitzapenak partekatuz.

Bermeoko emakumeen bizitzako istorioak ezagutu eta ikusgai jarriko ditugu.

Es una búsqueda en la memoria conservada en los álbumes de familia de las mujeres, en sus fotografías y relatos. Un encuentro con la última generación de mujeres que custodian álbumes familiares, las guardianas de la memoria no escrita. Acércate a este proyecto de fotografía y memoria que busca conocer y visibilizar las historias de vida de las mujeres de Bermeo.

**19** EGUENA
LIBURU AURKEZPENA

| ORDUA | TOKIA | PUBLIKO GUZTIAK | EUSKERAZ |
|---|---|---|---|
| 18:30 | LIBURUTEGIA | | |

# SORGINAK, PUTAK, TERRORISTAK

## Indarkeria matxistaren ertzak: tortura politikoa

## IDAZLEA

Olatz Dañobeitia Ceballos

SARRERA LIBREA
PUBLIKO GUZTIAK




Tortura atzo, gaur eta bihar da. Horixe da liburu honen abiapuntuetako bat. Lehenago aitortu nahi ez, eta orain iraganeko kontua dela sinestarazi nahi digute; bortxa egoera horiei ez ikusiarena egiteak, ordea, ez ditu mina eta indarkeria iraunkor baizik bihurtzen.

Horretaz jakitun, eta torturak indarkeria matxisten beste ertz bat direla sinetsita, liburu honetako egileek arduraz heldu diote prozesu honi: Euskal Herriko gatazka politiko-armatuan borrokatu diren emakume torturatuek pairatutako bortxa berezitu hori aztertzeko eta kokatzeko marko feminista bat eraikitzea, elkarlanean eta orain arte egindako aitortza eta osatze bidearen jarraipen gisa.

Ariketa kolektibo honetan, beraz, ikuspegi feministatik aztertu nahi izan dute errepresio-molde jakin hori, erreparazio pertsonal eta kolektiboa helburu.

26 OTSAILA 5 MARTXOA

EGUENA
TAILERRA

| ORDUA | TOKIA | EUSKERAZ |
|---|---|---|
| 18:00 - 20:00 | KULTUR ETXEAN | |

# ZAINTZARAKO SUKALDARITZA

## Zer aldatzen da gizonok zaintzari lekua egiten diogunean?

### TREBATZAILEAK

**Aritz Resines Ruiz, Andrea Larrea Garcia, Nahia Zeziaga Bengoa**



IZENA EMATEA
16+ GIZONAK

Tailer praktiko honetan, sukaldaritzaren bitartez, gizonok gure bizitzako bi arlo garrantzitsuen inguruan hausnartuko dugu —umeen eta nagusien zaintza—, eta aldi berean, eguneroko sukalde-lanak modu kontziente eta eraldatzailean egiten ikasiko dugu, elikadura-gomendio erabilgarriak ezagutuz, eta errezeta erraz baina originalak landuz.

Sukaldean arituko gara, baina baita elkarrekin pentsatzen ere: nola bizi dugu aitatasuna? eta zaintza? Zer eraldatzen da ardura gehiago hartzen dugunean?

Gune segurua izango da: gure bizipenak partekatu, zaintzari buruzko gogoetak kolektiboki egin, eta horretatik ondorioak zein ikaskuntzak atera ahal izango ditugu.

**11** ASTEAZKENA
TAILERRA

| ORDUA | TOKIA | EUSKERAZ, GAZTELANIAZ, ARABIERAZ |
|---|---|---|
| 11:30-14:15 | Bermeoko OLHUI eraikinean | |

# BIZIRAUPENERAKO SUKALDARITZA

Ikasleak irakasle

## TREBATZAILEAK

Bermeoko OLHUIko ikasleak



IZENA EMATEA
18+ EMAKUMEAK

Tailer honetan, 5€ baino gutxiagoko aurrekontuarekin, errezeta osasuntsu eta zaporetsuak egiten ikasiko duzu. Bertako eta mundu zabaleko usaindun errezetak izango dira.

من خلال هذه الورشة، ستتعلّم كيفية إعداد وصفات صحية ولذيذة بميزانية تقل عن 5 يورو. ستكون وصفات بنكهات محلية وعالمية.

A través de este taller, aprenderás a elaborar recetas sanas y sabrosas, con un presupuesto inferior a 5€. Serán recetas con aromas autóctonos y de medio mundo.

# EMAKUME ELKARTEAK

- BERMEOKO MUGIMENDU FEMINISTA, BMF
- DIAMOU, EMAKUME SENEGALDARREN ELKARTEA
- ASSALAM, EMAKUME MAROKOARREN ELKARTEA
- ITAIA, EMAKUMEEN ANTOLAKUNDE SOZIALISTA
- BERMIOKO GAZTE FEMINISTAK
- ERROXAPE, EMAKUMEEN ELKARTEA

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) 900.840.111
AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat . Doakoa, ez da fakturan agertzenturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU) 900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA 946.179.160

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

BERMEOKO UDALA